


BIZIKIDETZA PROIEKTUA 08-09



Elkarbizitza Proiektuari jarraipena eman ahal izateko gutxieneko baldintzak:

Urteko Elkarbizitza Planaren planifikazioa aurrera eramateko eta eskatzen zaizkigun konpromiso guztiak bete ahal izateko, bai klustrokidenak bai koordinatzailearenak bai Behatokiko partaideenak (ikasle, guraso, udaletxeko ordezkariak,...), ezinbestekoa deritzogu hurrengo baldintza betetzeari: aurten izandako giza-baliabide berak edukitzea. Ezinbesteko baldintza hori beteko ez balitz, bertan behera geratuko lirateke eskatzen zaizkigun konpromiso guztiak.

1. SARRERA:

06-07 ikasturtean Bizikidetzari buruzko Proiektu Pilotua garatu zen Koldo Mitxelena Institutuan. Ikasturte hartan sentsibilizazio, diagnosi eta planifikazio faseak burutu ziren, Bizikidetza Programaren adituen gidapean. Lan esanguratsua izan zen institutuan, irakasle, ikasle eta gurasoekin landu zena. 07-08 ikasturtean proiektu horri jarraipena eman diogu aurreko ikasturtean planifikatutako helburuetatik abiatuz. Helburuak honako hauek ziren:

0. BIZIKIDETZAREN BEHATOKIA SORTU

1. BIZIKIDETZAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA LANDU (KANPAINA EGIN)
2. EKINTZA OSAGARRIEN PROTOKOLOA/EBALUAZIO IRIZPIDEAK ADOSTU
3. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN JARRAIPENA EGIN ETA ARAUTEGIA SORTU
4. ELKARBIZITZA BATZORDEAK BULTZATU ETA BATXILERGOAN EZARRI
5. IKASLEEN PARTAIDETZA HANDIAGOTZEN DUTEN JARDUERA DIDAKTIKOAK GELAKO LANEAN TXERTATU

2. ABIAPUNTUAK:

07-08 ikasturtean definitu genituen helburuen lorpen maila oso handia izan da. Eskola Komunitate osoaren inplikazioari esker (ikasle, irakasle, guraso eta ez irakasle beste langileak).

Ildo beretik jarraitu nahi dugu datorren ikasturteko helburuak planifikatzerakoan. Hori dela eta ezinbestekoa iruditzen zaiugu behar hauei erantzuna ematea:

- Gure ikastetxean gatazken ebazpenak kudeatzeko **familien partaidetza** ezinbestekoa dela deritzogu hori dela eta beraien inplikazioa areagotu behar dugu.

- Urtero ikasle berriak izango dugunez edota ditugunen heldutasun maila aldatzen denez **Bizikidetzari** buruzko **gogoeta** eta **sensibilizazioa** egiten jarraitu behar dugulakoan gaude.
- Aurten martxan jarri den **Behatokiari protagonismo** gehiago ematea beharrezkoa ikusten dugu.
- Ikastetxean bizikidetza on bat izateko sortzen diren **gatazken ebazpenean ikasleen partaidetza** areagotu behar dugu, horrretarako zenbait estrategia martxan jarriko ditugu.

3. 0809 IKASTURTERAKO HELBURU ZEHATZAK:

1. BIZIKIDETZAREN BEHATOKIAREN lanei jarraipena eman
2. BIZIKIDETZAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA KANPAINEKIN

JARRAITU

3. BITARTEKARITZA PROTOKOLOAK AZTERTU ETA DINAMIZATU
4. BULLYNG DELA ETA ZENBAIT ESTRATEGIA ETA UNITATE

DIDAKTIKO PROPOSATU

5. GURASOEN PARTAIDETZA HANDIAGOTZEN DUTEN ESTRATEGIAK

BILATU

4. PROIEKTUAREN PLANIFIKAZIOA

Helburua	Ekintzak	Arduraduna Partehartzaileak	Denbora eta iraupena	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazkariak
<p>1. ELKARBIZITZAREN BEHATOKIAREN lanei jarraipena eman</p>	<p>1.1. Taldea eratu: <i>07-08 eraturako batzordeari jarraipena eman beharrezko aldaketak eginez (estamentuka)</i></p>	EK-aren batzordea, Bizikidetzaren Behatokia	08ko urria: Ebko bilera batean	Aurretik eginiko materiala (inkestak, ...), aurreko ikasturteetako esperientzia (Elkarbizitza Batzordeak, ...)	<p>Batzordea eratu geratzen da 0809 ikasturtea hasi aurretik</p>
	<p>1.2. Plana egin: <i>ikasturtean zehar jorratuko ditugun helburuak zehaztu: 07-08ko lanei jarraipena eman</i></p>	Elkarbizitzaren Behatokia	08ko urria: 1. bileran, plana egiteko eta kideen artean ardurak banatzeko		<p>Urriaren bukaeran plan idatzia Eskola Kontseilu osoari aurkeztu egiten zaio</p>
	<p>1.3. Sensibilizazio kanpainak prestatu</p>	EK-aren batzordea, gainontzekoen laguntzarekin (bileran mailakako batzordekoekin ...)	08-09ko ikasturtean zehar		<p>Sensibilizazio kanpainak burutzen dira eta sortutako materialen bilduma eskura dago</p>
	<p>1.4. AIAko berrizketa bukatu</p>	EK-aren batzordea, gainontzekoen laguntzarekin (bileran mailakako batzordekoekin ...)	08-09ko ikasturtean zehar		<p>AIA DOKUMENTUA</p>
	<p>1.5 08-09 txostena: ikasturteko elkarbizitzari buruzko txostena egin eta eskola komunitateari aurkeztu (BB, Klaustroa, Eskola Kontseilua, ...)</p>	EK-aren batzordea	08ko maiatza eta ekainean		<p>Bizikidetzari buruzko txostena aurkezten zaio eskola komunitateari</p>

Helburua	Ekintzak	Arduraduna Partehartzaileak	Denbora eta iraupena	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazkariak
2. BIZIKIDETZAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA KANPAINEKIN JARRAITU	2.1. Berrikuntza proiektua gertatu eta irakasleon batzordea sortu	Irakasle talde bat, Batzordea	08ko irailean osatu	Bizikidetzarako ordu dotazioa Berrikuntza proiekturako diru-laguntzak eta orduak Institutuko baliabide didaktikoak	Batzordearen lehen bilera deitzen da
	2.2. Sentsibilizaziorako kanpainaren ildo nagusiak prestatzen ditu	Irakasle talde bat, Batzordea	08ko urriaren amaiera		Kanpainaren zirriborroa dokumentu batean sortu dute
	2.3. Kanpainaren egitasmoa landu eta moldatu egiten da tutore, bizikidetza batzordeekin, ...	Batzordea, tutoreak, Bizikidetza Batzordeak,	08ko abenduan		Kanpaina diseinatua geratzen da: datak, edukiak, ekintzak ...
	2.4. KANPAINA: Bizikidetzari buruzko sentsibilizazioa egiten da	Eskola komunitate osoa hartu beharko luke parte, bereziki ikasleak	Ezarriko den epean, bigarren hiruhilabetean		Ekintzak modu egokian garatu dira Partehartzea dago
	2.5. Ebaluazioa: Batzordeak aztertzen ditu buruturiko ekintzak eta hauen eragina	Irakasle talde bat, Batzordea	08ko maiatza-ekainean		Memoria egiten da, lorpenak zehazten dituen ebaluazioa egin delarik

Helburua	Ekintzak	Arduraduna Partehartzaileak	Denbora eta iraupena	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazkariak
3. BITARTEKARITZA PROTOKOLOAK AZTERTU ETA DINAMIZATU	3.1. 1. mailako ikasleei formakuntza eman	Zuzendaritza	1. hiruhilabetea	Bizikidetzarako ordu dotazioa Berrikuntza proiekturako diru-laguntzak eta orduak Institutuko baliabide didaktikoak	Formatutako ikasleen artean bitartekariak izendatuko dira
	3.2. Ikasleontzako protokoloa sortu	Irakasleon Bizik. Batzordeak protokolo baten proposamena egingo du Ikasleek landu eta onartuko dute	1. hiruhilabetea		Protokolo idatzia daukagu lehen hiruhilabetea amaitzean
	3.3. Irakasleei formakuntza eman	Kanpoko aditu batek klaustroari formakuntza eman (1. mailako tutoreek lehentasuna)	1. hiruhilabetea		Formatutako irakasleen artean bitartekariak izendatuko dira

Helburua	Ekintzak	Arduraduna Partehartzaileak	Denbora eta iraupena	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazkariak
4. BULLYNG DELA ETA ZENBAIT ESTRATEGIA ETA UNITATE DIDAKTIKO PROPOSATU	4.1. Ikastetxean gai honen inguruan dagoen materiala aztertu, sailkatu eta unitate didaktikoak sortu	Irakasleon Bizik. Batzordeak	4 hilabete	Eskura ditugun material guztiak: administrazioak egindako protokoloa, bideoak, musika, ipuinak, jokuak...	Sortutako unitate didaktikoak
	4.2. Tutorei unitate didaktikoak azaldu beraiek ikasleekin lantzeko	Elkarbizitza Batzordeko arduradunak eta tutoreak	09ko otsaila eta martxoa		Tutoreen bileretan ebaluazioa

Helburua	Ekintzak	Arduraduna Partehartzaileak	Denbora eta iraupena	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazkariak
5. GURASOEN PARTAIDETZA HANDIAGOTZEN DUTEN ESTRATEGIAK BILATU	5.1. 1. mailako gurasoei Elkarbizitza Batzordeari buruzko informazioa eman	Zuzendaritza eta Elkarbizitza Batzordeko arduradunak	08ko Ekaina	1. mailako bilera orokorra gurasoekin	Aurkeztuko den boletina
	5.2. 1. mailako gurasoen Elkarbizitza Batzordea sortu: kurtso hasierako 1. bileran gelako guraso ordezkari bana hautatuz	Zuzendaritza eta 1. mailako tutoreak eta gurasoak	08ko urria eta azaroa	Kurtso hasierako gelako bilerak	Lehen bilera deitzen da
	5.3. Batzordea ikasturtean martxan jarri Bizikidetza gaiak bertan plazaratzen dira Edozein motatako arazoak eztabaidatzeko foroa da	Elkarbizitza Batzordeko arduraduna Zuzendaritzako kide bat 1. mailako tutore bat	08-09ko ikasturtean zehar	Hiru hilabetero bilera bat egiten da, azkena ebaluaziokoa izango da	